

**Bermeoko Udalaren eta Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ren
arteko hitzarmena**

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, fede ematen du.

Elkartzen dira

Alde batetik, MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA And. (NAN: 72.252.748-L) Bermeoko Udaleko alkateordea, 2020ko uztailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabagikiari jarraituz diharduena.

Bestaldetik, Amalur Bedialauneta Ibaibarriaga, adinduna, NAN zenbakia 44340080J duena; Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.ren (IFZ B95284857) kudeatzaile baldintzetan hartzen du parte, 2015eko ekainaren 19n Iruñeako Notario Elkargoaren kide den Enrique García Jalón de la Lama jaun Notarioaren aurrean, eta 794 protokolo zenbakia duen ahalmenaren arabera ahalmendua dena.

Adierazten dute

1. Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko informazioaz osatutako egunkaria eta webgunea egiten ditu, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* izeneko asteartetik ostiralera, eta egunero busturialdea.hitza.info, eta Bermeoko berri ematen du, zabal. Hauek dira gure komunikabideen ezaugarriak: finantziarioa pribatua (bi heren inguru; autofinantziarioan goraka joateko helburua du) eta publikoa dituen, eta herrigintzan oinarritua izatea. Informazio produktu horien sorburua, euskarako komunikazio eta kultur erakundeetan dago.

2. Bermeoko Udalak, informazioa emateko helburua era zabal eta irekian bideratzen bada, alderdikerietan erori gabe, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza*-ren egunkaria, Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko Hitzaren web-a eta sor litezkeen beste proiektuak herrirako eta eskualderako onuragarriak direla uste du.

3. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkaria eta busturialdea.hitza.info euskararen erabilera areagotzeko lanean ari dira eta ariko dira euskararen normalizazioa lortzeko bidean oso tresna garrantzitsuak dira eta izango dira, eta horren guztiaren onuradun Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko herritarrak izango dira (beraz, Bermeoko herritarrak ere bai).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E40004C34800P6G709K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Zentzu horretan, eta Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k bide horretatik lan egiteko konpromisoa hartua duenez, Udalak erakunde horrekin elkarlanean aritzeko borondatea adierazten du.

Honenbestez, eta 2020ko uztailaren 28ko Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabakiarekin bat, hitzarmen honen bidez aipatutako konpromisoa gauzatzera gatoz.

KLAUSULAK

Lehena. Egunkariak eta webguneak, informazioa jorratzean eta zabaltzean, era guztietako edukiak eta gaiak argitaratuko ditu. Independentea, plurala, orekatua eta parte-hartzailea izango da. Beraz, alderdi politikoen eraginpean izatea saihestuko du, eta inpartzialtasuna zainduko. Eskualdeko beste elkarteek eta hiritar orok parte hartu ahal izango dute egunkarian eta webgunean.

Bigarrena. Bermeoko Udala informazio iturri garrantzitsua da herriko bizitzan. Horrela, egunkariak Udalaren eta herritarren arteko zubi izan nahi du, eta Udalarekin zerikusia duten albisteak argitaratuko ditu. Lehenengo puntuaren ildo berean, aipatutako produktua informazioaren aniztasunean eta orekan oinarrituko da.

Hirugarrena. Egunkarian eta edizio jarraituan zaindu egingo da pertsonaren errespetua edo norbaiti min eragin diezaiokeen informaziorik ez ematea.

Laugarrena. Egunkaria eta interneteko ataria euskara batuan idatziko dira, baina eskualdeko ukituarekin. Hizkuntza eredu bihur daitezke irakurleentzat. Eta eredu izan daitezkeen aldetik, ahal den eredurik egokiena izaten saiatuko dira. Beraz, gutxieneko hizkuntza kalitatea ziurtatu behar dute.

Bosgarrena. Euskararen normalizaziora begirako lanean segituko dute, eta normalizazioarekin zerikusia duten beste ekimen denak zabalduko eta sustatuko ditu.

Seigarrena. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* astean lau aldiz argitaratuko da eta busturialdea.hitza.info edizio jarraituan, eta Bermeoko Udalaren berriak jaso beharko dituzte, eta udal kanpaina, ikastaro eta ekimen guztien berri eman beharko dute, beti neutraltasun politikoa bermatuta.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C34800P6G7O9K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Horretarako, Bermeoko Udalak ematen dituen prentsaurrekoen berri eman beharko die, aurrerapenaren nahikoarekin, bertaratzeko aukera izateko, eta kaleratzen dituen prentsa ohar guztien kopia bidaliko die.

Gainera, Bermeoko udalak ekonomia berraktibatzeke martxan jarriko duen programaren zabalkundea egiten lagunduko du. Horretarako, programa horri lotutako orrialdeak apurtzeko formatudun 6 iragarki argitaratu beharko ditu Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitzak*. Aipatutakoaz aparteko publizidaderik egin behar izatekotan, ohiko tarifen gainean %50eko deskontua aplikatuko dio Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitzak* Bermeoko Udalari.

Zazpigarrena. Euskara oraindik ez dago normalizatua, eta, beraz, proiektuak bideragarriak izan daitezten, erakunde publikoei diru laguntza eskatuko die (eskualdeko udalei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari). Bermeoko Udalak Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkariari eta busturialdea.hitza.info webguneari diru laguntza emateko asmoa adierazten du.

Dirulaguntza hau Plangintza Estrategikoaren 1.1 lerroagaz bat dator, hau da, Nortasun propioaren jabe dan herria lerroagaz.

Zortzigarrena. Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.k urteko egitasmoa hitzarmen hau sinatu eta 10 eguneko epean aurkeztuko du Bermeoko Udalean.

Bederatzigarrena. Horrela, Udalak Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.ri, komunikazio proiektu honengatik, 2020. urterako guztira 17.000 euroko laguntza emango dio.

Udalak urteko diru laguntza bi zatitan emongo da: %70a hitzarmena sinatu ondoren, eta %30a gastuak behar bezala justifikatu ondoren. Gastuen justifikatzea, 2021eko urtarrilaren 31a baino lehenago egin beharko da.

Aurrekontuaren partida honakoa da: 00800-33413-4710001.

Dirulaguntzaren aurrerapena bermatzeko ez da beharrezkoa izango bermea ipintea, talde horren ibilbidea ikusirik ez delako aurreikusten jasotako laguntza bere helburura ez bideratzea edota bestelako ezertan xahutzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C34800P6G7O9K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia



Hamargarrena. Dirulaguntza hauek Dirulaguntzen Lege Orokorra onartzen duen 38/2003 Legearen 28. artikulua araberan eman daitezke, eta bertan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Era berean, dirulaguntza honeen araubidea, aitatutako 38/2003 Legean jasotakoa izango da.

Hamaikagarrena. Diruz laguntzeko gastuak izango dira zalantzarik barik beharrezanekoak diranak hitzarmen honetan araututako dirulaguntza betetzeko.

Diru laguntza hauek lortu daitezken bestelako sarrera publiko zein pribatuekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantzaketarik ez dagoen bitartean.

Hala izanda, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M. behartuta egongo da bere finantzaketarako lortzen dituen bestelako sarrera eta diru laguntzen berri ematera eta, denetara %100tik gorako finantzaketarik lortzen badu, Bermeoko Udalari horren berri ematen, gain-finantzaketarako kopuruak berreskuratzeko prozedurari hasiera eman diezaion.

Halaz egingo ez balitz, zigorra ipintzeko arrazoia izango litzateke, itzuli beharreko kopuruei lege interesak aplikatzearen kalte barik.

Hamabigarrena. Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdea *Hitza* egunkariak eta webguneak egunero Bermeoko Udalaren diru laguntza jasotzen duela adieraziko du.

Hamahirugarrena. Lankidetzaren hitzarmena bete duela justifikatzeko, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.M.ko ordezkariak, memoria txostena aurkeztu beharko du, non hitzarmena zelan eta noiz bete den azaldu beharko den zehatz. Txosten honi laguntzeko, fitxategi grafikoak erantsi ahal izango dira, adibide zehatzak aurkezte aldera.

Era berean, diru-sarreraren eta irteeraren balantzea aurkeztuko dio Bermeoko Udalari, 2021. urteko urtarrilean, non jasotako bestelako diru laguntzak agertuko diren, gain-finantziaketa ote dagoen aztertu ahal izateko.

Aurreko laguntzaren bat justifikatzen ez den artean, ez da onartuko berririk.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C34800P6G7O9K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Hamalauugarrena. Bermeoko Udalak, bere aldetik, eta Diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen aginduei jarraiki, honako eginkizunak beteko ditu:

- Emandako diru laguntzaren kontrolak egin, diru laguntza oinarritzen duten helburua eta egintzak benetan egin direla egiaztatu ahal izateko.
- Lege berari jarraiki, diru laguntzaren oinarriak ez direla bete ikusten bada, edota ez direla era egokian justifikatu ikusi ezker, desbideratutako diru publikoa berreskuratzeko, udalak dagozkien prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.
- Era berean, hitzarmen honetan jasotako baldintzak zehatz betetzen ez direla ikusi ezker, emandako diru laguntza berreskuratzeko, udalak dagozkien prozedura eta espedienteak izapidetuko ditu.
- Eta berdin jokatu du udalak, emandako kopuruak hitzarmen honetan jasotako helburuak betetzera bideratu beharrean bestelakoetara bideratu direla egiaztatuko balitz.

Hamabosgarrena. Hitzarmen honen iraupena 2020. urterako aurreikusten da. Hala ere, alde biak ados egon ezker, hitzarmenaren iraupena urtero luzatu ahal izango da, baina gehienezko iraupena, luzapenak barne, ezin izango da lau urte baino gehiagokoa izan.

Urte bateko diru laguntzaren kopuruak ez du ezelako eskubiderik ematen beste urte baterako.

Hamaseigarrena. Arau-hauste legez hartuko dira jokabide hauek:

- 1.- Lehenengo sei ataletan jasotako irizpideak ez betetzea.
- 2.- Jasotako diru laguntza ez justifikatzea horretarako emandako epean.
- 3.- Eskuratutako bestelako sarreraren barri ez ematea, berdin publikoak zein pribatuak izan.
- 4.- Gain-finantzaketarik balego, horren barri ez ematea edota itzuli beharreko kopuruak ez itzultzea.

Lehenengo ataletan jasotako arau-haustearen kasuan, onartutako diru laguntza murriztea ekarriko du zigor moduan, egindako ez betetzeen garrantziaren arabera kalkulatu dena, ez bada ez betetzeen larritasunagatik diru laguntza osorik itzultzea erabakitzen dela.

Beste ataletan aurreikusitako arau-hausteen kasuan, diru laguntza osorik itzultzea ekarriko du zigor moduan, eta hurrengo urteetan diru laguntza berriak eskuratzeko ezintasuna suposatuko du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C34800P6G7O9K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUNOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Zigor horiek ipintzeko, legediak aurreikusitako prozedura jarraituko da eta erabakia hartu orduko interesdunari entzunaldia ematen zaiola bermatuko da.

Hamazazpigarrena. Hitzarmen honi honako legedia aplikatuko zaio:

1. Diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legea.
2. Diru laguntzen Legearen Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.
3. Zuzenbide administratiboko arau orokorrak.
4. Zuzenbide pribatuko arau orokorrak.

Hori horrela, hitzarmenean aurreikusten ez den guztirako, edozein zalantza argitu eta hitzarmena interpretatzeko, aitatutako legediak aurreikusitakoa jarraituko da zehatz.

Hemezortzigarrena. Hitzarmen honen izaera administratiboa da. Ondorioz, honen aplikazio edo interpretazioan hartzen diren erabakiak bide administratiboari amaiera emango die eta zuzenean aplikagarriak izango dira, Administrazioarekiko Auzibidean errekurritzeko eskubidearen kalte barik.

Hemeretzigarrena. Hitzarmen hau eta emakidarako erabagia dirulaguntzen base nazionalen argitaratuko dira, Sektore Publikoa Arrazionalizatzeari eta Administrazioa erreformatzeko beste neurri batzueri buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako dirulaguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua betez.

Eta bi aldeen adostasunaren seinale, hitzarmen hau sinatzen dute, orri-oinean ipatutako datan.

BERMEOKO UDALEKO
ALKATEA
M. Idoya Platas Arenaza

LEA-ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK S.L.-KO
KUDEATZAILEA
Amalur Bedialauneta Ibaibarriaga

IDAZKARI AKZIDENTALA
Karmele Muñoz Arrigain



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004C34800P6G7O9K5Y2M0

Sinadurea eta data

AMALUR BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA(B95284857-LEA ARTIBAIALDEKO HEDABIDEAK SL)-HITZA -
ORDEZKARIA - 31/08/2020
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 31/08/2020
MIREN KARMELE MUÑO A ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 01/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 01/09/2020
09:13:20

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0095
Data: 26/05/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

